

ABELARDO MON AMOUR

Abelardoren historia

Banda Bi-k kontzertu bat eskaintzen du, Abelardo izengoitiz ezagututako lagun-taldeko baten abenturen gainean jarduten duena. Bertan bere bizitza gorabeheratsuaren pasarteak jasoko ditugu (gaur egun Arrasateko psikiatrikoan bizi da). Zenbait abestiren bidez, antzerki tarteak ere txertaturik izango dituztenak, bere bizitzaren istorioaren arrastoaren atzetik ibiliko gara.

Abelardo bere neska-lagunak uzten duen Alde Zaharreko gazte bat da. Horren ondoren, Espainia hegoaldeko herri batera aldatzen da lan egitera. Bertan diskoteka baten ardurapean dauden batzuek gogor jipoitu zuten. Euren aurkako epaiketa galdu ostean, luzaroan mendekua noiz nola hartuko zuen pentsatzen eman zituen egunak. Bitarte horretan, hiru moto istripu izan, etxeen arpilatzaile talde batean parte hartu eta Ofelia delako batekin sexu harremanak izan zituen. Maitatua da eta maitatzen du, galdutako amodio hori medio negarrez luzaroan aritu ondotik, eta ia hiltzoria eragingo dioten hiru istripu larri eduki eta gero, azkenera, berarekin justizia egin dezaten lortzen du.

Indar handikoa dugun istorio hau humorez eta sentimendu handiz eskaini nahi du **Banda Bi-k**, musika alai, arin eta energiatsua baliatuta hori lortze aldera.

Aurkezpena

Eszenatokian ospitaleko arropaz jantzitako gizon bat (**Rafa Pérez**) agertuko da: Abelardo da bera, eroetxetik alde egin berritan. Hala holako garrasi batzuk bota ostean, eszenatokitik jaitsi eta ikusleen aldera egingo du.

Abelardoren atzealdean, eserita, antzerkiaren gainontzeko hiru pertsonaiak izango ditugu. Beraiek, euren hizketaldiak, janzkera zein portaerak ikusita, ospitale bereko pazienteen itxura guztia ematen dute. Jarraiko hauek ditugu beraiek: Hari (**Gurtzune Abruza**) -makarra mihiluze histrionikoa-, Muka (**Patricia Fernández**) -heldugabetasun nabarmena darion Maria Antonieta bere baitan baitaratu moduko bat, eta Txetxu (**Imanol Lizarralde**) – kopa kapela daraman emakumez jantzitako mari-maisu bat. Antzerkiaren zuzendaritza ardurapean **Olatz Lizarralde** izango dugu.

Abelardo eszenatokira atera eta berehala, istorioaren aurkezpenari eta lehenengo abestiari ekiten dio antzezle taldeak (*Banpiroa banaiz*).

Taldea

Sketch bakoitzari taldearen musikak jarraituko dio, nahiz eta, baten batzuetan, antzezpeneren atzealdeko soinua izango den.

Nerea Larrea abeslariak, **Luis Frias Goldaraz**, **Iker Zaldúa eta Irving Bennet** gitarristek, **Aitor Estrada** tronpetistak eta **Gorka Lasa** pianista eta konpositoreak, eta **Olatz Lizarralde eta Ane Bozal** korista-dantzariak osatzen dute taldea.

Abestiaren ondoren, antzezpenei bukaera ematen zaie eta taldeko batek egindakoaren aurkezpena egingo du.



Musika mota

Musika estiloari dagokionean, XXI. Mendeko berbena modukotzat jo genezake. Etiketaren bat jarri behar izatekotan, “pop ireki” edota “pop eklektiko” direlakoan baitan koka genezake.

Honekin guztiarekin zer adierazi nahi dugu? Tarteka “pop exotiko ilunaren” igurtzi bat dariola musikari (“Banpiroa Banaiz”). Bestetuetan aldiz, Rocka izango dugu estilo nabarmena (“Heriotza neskalaguna”, “Telma y Louise”). Eragin kubatar eta runberoa ez dira faltako (“Abelardo” “Barrio Camello”), are funky ukitu bat ere (“Goizeko ipurtargia”, “Ez da paranoia”). Horrez gain, rantxera bat egongo da (“El corrido del Hamaika”) eta, azkenik, ezin ahaztu SKA estiloa otxotearekin bateratzen dituzten nahasketa arraroak ere erabiltzen ditugula (“Idea”).

Esandako guztia esanda, ikus-entzulearen arreta zuzenekotasun original batez erakarri asmo dugula argi geratu da.

Gure asmoa

Ordu eta laurden iraungo duen tarte horretan, bateratsu musika zein antzerki edukiak erantsi nahi izan dizkiogu aukeratutako istorio honi, berau betiere modu satiriko, komiko eta dramatiko batez aldi berean gauzaturik. Osasun mentala du istorio honek ardatz nagusia, eta horren inguruan arazoak dauzkan jendeak behar duen begirunea azpimarratu nahi izan dugu.

Psikiatriko batean giltzaperaturik dagoen Abelardo gure laguna gogora ekarri nahi izan dugu modu berezi batean, eta, hartara, bere bizitza eta abenturak hona ekarri. Beroiek komedia formapean antzezturik, bere lagunei erakutsi dien maitasuna gogora ekarri nahi izan dugu, eta, batik bat, berari, eta, bera bezala, euren buruak ez-entzunak sentitu uste izan duten guztiei ere, omenalditxo bat eskaini.



ABELARDO MON AMOUR

La historia de Abelardo

Banda Bi ofrece un espectáculo que consiste en un concierto en torno a las aventuras de un compañero de cuadrilla, que se esconde bajo el seudónimo de Abelardo. En él contamos parte de su vida rocambolesca (hoy en día se encuentra en el psiquiátrico de Mondragón). Por medio de canciones, entrecruzadas con algunas escenas teatrales, seguimos el hilo de la historia.

Abelardo es un joven de la Parte Vieja Donostiarra abandonado por su novia. Se va a trabajar a un pueblo del sur de España, donde es apalizado por un grupo de gente que regenta una discoteca. Una vez perdido el juicio contra ellos, pasa tiempo tramando una venganza. Mientras tanto, tiene tres accidentes de moto, forma parte de una cuadrilla de desvalijadores domiciliarios, se lían con Ofelia... Ama y es amado, llora largamente por su amor perdido, tiene abundante sexo, tres accidentes de moto que casi le matan y finalmente consigue que se le haga justicia

Con la base de esta poderosa historia, **Banda Bi** ofrece una actuación plena de humor y sentimiento, ofreciendo una música alegre, ágil y enérgica.

La representación

En el escenario vacío aparece un hombre vestido con ropa de hospital (**Rafa Perez**): se trata de Abelardo, que acaba de escapar del manicomio. Lanza una serie de gritos y se escapa bajando del escenario entre el público.

Detrás de él, sentados, los tres personajes de la acción teatral, que se supone -las ropas, los gestos y las palabras así lo dan a entender- también son pacientes del mismo hospital: Hari (**Gurtzune Abruza**) -una macarra, deslenguada e histriónica-, Muka (**Patricia Fernández**) -una especie de María Antonieta ensimismada e infantil- y Txetxu (**Imanol Lizarralde**) -un marisabidillo vestido de mujer y con sombrero de copa. Todo ello bajo la dirección teatral de **Olatz Lizarralde**.

Nada más salir Abelardo del escenario, el grupo teatral inicia la presentación de la historia y de la primera canción (*Banpiroa banaiz*).

El grupo

Después de cada sketch teatral entra la música del grupo que, en algunos casos, hace de sonido de fondo de la actuación.

Lo forman las cantantes (**Nerea Larrea y Naiara Olasagasti**), los guitarras (**Luis Frías Goldaraz, Iker Zaldúa, Irving Bennet**), el trompetista (**Aitor Estrada**), el pianista y compositor musical (**Gorka Lasa**) y las coristas (**Olatz Lizarralde y Ane Bozal**).

A partir de la 7ª canción, se terminan las actuaciones teatrales y alguno de los miembros del grupo hace la presentación.

La trama musical

En lo que se refiere al estilo musical, podemos calificarlo como una especie de verbena del siglo XXI. De poner una etiqueta, las canciones entrarían dentro de un "Pop Abierto" o "Pop Ecléctico".

¿Qué significa esto? Que algunas veces hay un toque de Pop exótico sombrío ("Banpiroa banaiz"). Otras veces tenemos clara influencia del Rock ("Heriotza neskalguna", "Telma y Louise"). También las hay con influencia cubana y rumbera ("Abelardo" "Barrio Camello"). Y con un toque Funky ("Goizeko ipurtargia", "Ez da paranoia"). De ahí en adelante contamos incluso con una ranchera ("El corrido del Hamaika"). Y para terminar hay que decir que también ensayamos mezclas extrañas ("Ideia") donde combinamos el SKA con el Otxote.



Con todo lo expuesto, queda claro que planteamos una propuesta musical que pretende un interés directo.

La intención

A lo largo de una hora y cuarto, hemos querido dotar a una historia de un contenido mixto musical y teatral a la vez, con un empeño satírico, cómico y dramático. La salud mental es la clave de la historia y la necesidad de que la gente que tiene problemas con ella sea vista y escuchada.

También queremos traer a la memoria a nuestro amigo Abelardo, encerrado en un psiquiátrico, en conmemoración de su vida y de su aventura. La reproducimos en clave de comedia, y es un tributo de amor por parte de sus amigos, que también es un homenaje a él y a todos los que como él no se han sentido escuchados. Para que tengan un final feliz.

